

Euskadiko ETE eta autonomo guztiak erabili beharko dute fakturazioaren kontrolerako sistema hau datorren urtetik aurrera

Kutxabankek enpresa bezeroei TicketBAI sistema erabiltzeko baliabideak jarriko dizkie

- **‘Billin’ fakturaziorako softwarea erabili nahi dutenei hobariazko baldintzak eskainiko dizkie**
- **Programetan eta tresna informatikoetan inbertsioak egiteko beharra duten negozioentzako finantzazio-ildo berezia sortu du Erakundeak**

2021eko maiatzaren 4an. Kutxabankek ETE eta autonomoentzako neurri-sorta berezia sortu du, hiru Ogasunek **2022ko urtarrilaren 1etik** aurrera ezarriko duten **TicketBAI** fakturazio sistema beren negozioetan abian ipini dezaten.

Homologatutako softwarea sortu duen ‘Billin’ sozietatearekin lortu duen akordioari esker, Kutxabanken bezero direnek hobariazko baldintzetan eskuratu ahal izango dute fakturaziorako programa hau, eta deskontu nabarmenak lortuko dituzte ordainketak Erakundeke txartelekin egiten badira.

‘Billin’-en ezaugarrietako bat da internetekin bat egiteko gailua baino ez duela behar erabili ahal izateko. ‘As a service’ deritzon softwarea izanik, ez da beharrezkoa bestelako kudeaketa-sistematara inbertsio gehiagorik egitea.

Horrekin batera, Erakundeak **finantza-ildo** berezia sortu du digitalizazio-maila txikia duten enpresentzat, behar dituzten tresna informatikoak eta hauentzako programak errazago eskura ditzaten.

Azpimarratzekoa da 2021 urtean zehar TicketBai sistema borondatez ezartzen duten ETE eta autonomoek, ekitaldi honetan eginiko inbertsioen gainean kenkari fiskalak izango dituztela PFEZ-ko kuota osoan edo Sozietateen Zergan.

TicketBAI Hiru Foru Aldundiek eta Jaurlaritzak elkarlanean sustatutako egitasmoa da, eta fakturazio softwareetan legezko betebeharrak tekniko batzuk ezarriko ditu, alor guztietan sortzen diren diru-sarrerak kontrolatzeko eta zergen elusioa eragozteko.

Azken kontsumitzaileei zerbitzuak eman edo produktuak saltzen dizkieten alorreari eragingo die batik bat sistema honek, gehienak eskudirutan kobratzen baitira.

Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera ezarriko dute TicketBAI sistemaren derrigortasuna, eta Araba apurka-apurka bateratuko zaio, 2022 urtean zehar.